Kontratuen erregistroa 2023ko ekainean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko ekainean 54.916 pertsona kontratatu dira, joan den urteko ekainean baino 4.401 gutxiago (% 7,4ko beherakada). Maiatzarekin alderatuta, berriz, hazi egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 10.017 pertsona gehiago kontratatu dira,% 22,3ko gorakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 28.183 gizonezko eta 26.722 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan murrizketa bikoitza da, 2.979 gizon gutxiago kontratatu baitira (% 9,6ko jaitsiera) eta emakumeen kasuan, aldiz, 1.422 gutxiago (% 5,1eko beherakada).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 33,62 da, eta baxuagoa da gizonena (33,02) emakumezkoena baino (34,25). Gipuzkoakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (32,39), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (34,40).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 28,10 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43 urtekoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (32,68 eta 34,12 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 33,76 urte baitituzte gizonezkoen 30,66ren aurrean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino apur bat zaharragoak dira (33,61 vs 33,63).

• JATORRIA

2023ko ekainean kontratatutako pertsonen % 17,9k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino puntu 0,1 altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 52,6k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 13,2k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 10,5ek Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa, % 8,1ek Europako Erkidegoko herrialde batekoa, % 7,7ko portzentaia dute Europako Erkidegoko ez den herrialde batetik etorritakoek eta, azkenik, % 6,9koa Asiatik etorritakoek. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (33,24 eta 35,37 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrikako iparraldekoak dira gazteenak (33,49 urte) eta Saharaz azpiko Afrikako herrialderen batekoak zaharrenak (37 urte).

Azken hilabetean, Afrikako jatorria duten pertsonen kopurua murriztu da soilik: 186 pertsona gutxiago Ipar Afrikan (-%12,5) eta 59 gutxiago Saharaz hegoaldeko Afrikan (-%5,4). Balio absolutuetan gehien hazi den pertsona-taldea Latinoamerikatik etorritakoena izan da, 462 pertsona gehiago kontratatu baitira (% 9,8 gehiago); balio erlatiboetan, igoerarik handiena Asiatik etorritako taldean izan da, % 12,9ko igoerarekin (77 pertsona gehiago kontratatu).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen kopurua Latinoamerikatik etorritakoen artean izan ezik; horien kasuan, 370 pertsonatan hazi da kontratazioa (% 7,7ko hazkundea). Murrizketa handiena, balio absolu-

tuetan, Afrikako iparraldetik etorritakoen taldeak jasan du; 268 pertsona gutxiago eta % 17,1eko jatsiera; balio erlatiboetan, aldiz, beherakada handiena Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batetik etorritakoek jasan dute, % 17,9 jaitsi baitira (224 pertsona gutxiago).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 40,9k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %23,5ek batxilergoko ikasketak egin ditu, % 19,5ek LHkoak eta % 15,6k unibertsitateko ikasketak.

Hileko erreferentzian, profil guztietako pertsonen kontratazioak egin du gora. Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituztenak izan dira (+ 3.229 pertsona, % 16,8ko igoera); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde handiena LHko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da, % 38,6 igo baita (+2.986 pertsona).

Urteko erreferentzian, ikasketa mota guztien kontratazioa murriztu egin da. Beherakada handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-2.257 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 9,1eko murrizketa).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko ekainean zehar kontratazio kopurua 72.907 izan da EAEn, horietatik 18.020 (% 24,7) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabeen ehunekoa handia izan da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lan-erreformaren isla dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 27,1 eta % 22,4, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 13,3 hazida aurreko hilabetearekiko (8.540 kontratu gehiago); aurreko urtearekin alderatuta, aldiz, murriztu egin da (% 7,4 eta 5.867 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du jarduera gehienetan. Igoera handienak merkataritzan (+1.712), administrazio jardueretan (+1.462) eta manufaktura industrian (+1.376), izan dira. Jaitsierarik handiena, aldiz, lehen sektorean izan da, 1.007 kontratu gutxiagorekin.

Iazko datuekin alderatuta, jaitsierarik nabarmenenak honako profil hauen kontratazioan eman dira: manufaktura-industriak (-1.266), ostalaritza (-1.239) eta lehen sektorea (-793). Aitzitik, kontrataziorik handiena egin duten jarduerak informazioa (+807) eta hezkuntza (+442) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko erlazioan, kontratazioak gora egin du okupazio guztietan lehen sektoreko kualifikatuetan izan ezik; kasu honetan 173 kontratutan murriztu da lehengo hileko kopurua. Igoerarik handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, laguntza-teknikarien profilean gertatu da; + 3.358 kontratu (% 57,5eko igoera).

Iazko hilabete beraren aldean, kontratazioak behera egin du, batez ere ez-kualifikatuetan (-4.309, % 19,9 gutxiago), zerbitzuetako kualifikatuetan (-1.518, % 6,2 gutxiago) eta industriako kualifikatuetan (-1.137, % 20 gutxiago). Beste aldean, bi okupaziotan bakarrik egin du gora: teknikari eta profesional zientifikoetan (+1.499 eskaintza, % 21,1 gehiago) eta laguntza-teknikoetan (+80, % 0,9 gehiago).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko ekainean sinatutako kontratuen % 46 lanaldi partzialekoak dira, % 46,2 emakumeen kasuan eta % 23 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 30,9 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 63,5), hezkuntza (% 49) eta beste zerbitzuak (% 48,7). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 54,1), eta gutxiena, zuzendaritzako profila (% 2,5).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 18,2 Araban dago, % 48,9 Bizkaian eta gainerako % 32,2 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 170 kontratu gutxiago sinatu dira (% 1,3ko beherakada). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, igo egin da kontratu kopurua: 4.830 kontratu gehiago (% 15,7ko igoera) Bizkaian eta Gipuzkoan 3.880 kontratu gehiago (+ % 19,3).

Aurreko urtearen aldean, Araban 1.855 kontratu gutxiago sinatu dira, hau izan da erlatiboki beherakada handiena jasan duen lurraldea (% 11,7); Bizkaian % 7,1 jaitsi da (2.368 kontratu gutxiago) eta Gipuzkoan 138koa izan da jaitsiera(% 0,7ko beherakada).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko ekainean sinatutako kontratuen % 19,3 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 25,3 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 13 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 3,4 hazi dira; 2022ko ekainarekin alderatuta, % 17,5ekoa izan da beherakada.



		Eka-2023	Mai-2023	Eka-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	18.020	16.809	21.926	1.211	7,20	-3.906	-17,8
	Aldi baterakoa	54.887	47.558	56.848	7.329	15,41	-1.961	-3,4
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
	Mugagabeen %	24,7%	26,1%	27,8%	-1,40		-3,12	
Sexua	Gizona	36.436	31.872	40.656	4.564	14,32	-4.220	-10,4
	Emakumea	36.471	32.495	38.118	3.976	12,24	-1.647	-4,3
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
	Emakumeen %	50,0%	50,5%	48,4%	-0,46		1,63	
Mugaga-bea	Gizona	9.860	9.162	11.694	698	7,62	-1.834	-15,7
	Emakumea	8.160	7.647	10.232	513	6,71	-2.072	-20,3
	Guztira	18.020	16.809	21.926	1.211	7,20	-3.906	-17,8
Aldi batera-koa	Gizona	26.576	22.710	28.962	3.866	17,02	-2.386	-8,2
	Emakumea	28.311	24.848	27.886	3.463	13,94	425	1,5
	Guztira	54.887	47.558	56.848	7.329	15,41	-1.961	-3,4
Guztira	Gizona	36.436	31.872	40.656	4.564	14,32	-4.220	-10,4
	Emakumea	36.471	32.495	38.118	3.976	12,24	-1.647	-4,3
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
Mugaga-been tasa	Gizona	27,1%	28,7%	28,8%	-1,69		-1,70	
	Emakumea	22,4%	23,5%	26,8%	-1,16		-4,47	
	Guztira	24,7%	26,1%	27,8%	-1,40		-3,12	
Lanaldi partziala	Mugagabea	5.108	5.193	6.613	-85	-1,64	-1.505	-22,8
	Aldi baterakoa	20.341	17.146	21.110	3.195	18,63	-769	-3,6
	Beste batzuk	47.458	42.028	51.051	5.430	12,92	-3.593	-7,0
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
	LP tasa	34,9%	34,7%	35,2%	0,20		-0,29	

Kontratuen erregistroa 2023ko ekainean

		Eka-2023	Mai-2023	Eka-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Lanaldi partziala	Gizona	8.675	7.323	9.790	1.352	18,46	-1.115	-11,4
	Emakumea	16.774	15.016	17.933	1.758	11,71	-1.159	-6,5
	Guztira	25.449	22.339	27.723	3.110	13,92	-2.274	-8,2
	Gizonen tasa	23,8%	23,0%	24,1%	0,83		-0,27	
	Emakumeen tasa	46,0%	46,2%	47,0%	-0,22		-1,05	
	Tasa guztira	34,9%	34,7%	35,2%	0,20		-0,29	
Prestakuntza-koak	Prestakuntzakoak	907	24	820	883	3679,17	87	10,6
	Beste batzuk	72.000	64.343	77.954	7.657	11,90	-5.954	-7,6
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
	Prestakuntzakoak (%)	1,2%	0,0%	1,0%	1,21		0,20	
L. historikoa	Araba	13.299	13.469	15.154	-170	-1,26	-1.855	-12,2
	Bizkaia	35.637	30.807	38.497	4.830	15,68	-2.860	-7,4
	Gipuzkoa	23.971	20.091	25.123	3.880	19,31	-1.152	-4,6
	EAE	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
Gizonak	Lehen sektorea	873	1.781	1.556	-908	-50,98	-683	-43,9
	Erauzketa-industriak	9	6	11	3	50,00	-2	-18,2
	Manufaktura-industriak	7.587	6.502	8.856	1.085	16,69	-1.269	-14,3
	Energia	13	12	11	1	8,33	2	18,2
	Ura	538	282	466	256	90,78	72	15,5
	Eraikuntza	2.063	1.812	2.613	251	13,85	-550	-21,0
	Merkataritza	3.840	2.966	4.141	874	29,47	-301	-7,3
	Garraioa	3.871	3.976	4.615	-105	-2,64	-744	-16,1
	Ostalaritza	4.292	3.777	4.986	515	13,64	-694	-13,9
	Informazioa eta komunikazioa	1.727	1.418	1.292	309	21,79	435	33,7
	Finantzak eta aseguruak	162	105	101	57	54,29	61	60,4
	Higiezinen sektorea	28	37	38	-9	-24,32	-10	-26,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.078	822	1.282	256	31,14	-204	-15,9
	Administraziokoak	3.719	2.844	3.350	875	30,77	369	11,0
	Administrazio publikoa	480	420	499	60	14,29	-19	-3,8
	Hezkuntza	1.157	973	1.202	184	18,91	-45	-3,7
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.951	1.808	2.075	143	7,91	-124	-6,0
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.387	1.854	2.698	533	28,75	-311	-11,5
	Beste zerbitzu batzuk	562	381	742	181	47,51	-180	-24,3
	Etxeetako jarduerak	95	96	120	-1	-1,04	-25	-20,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	4	0	2	4		2	100,0
	Guztira	36.436	31.872	40.656	4.564	14,32	-4.220	-10,4
Emakumeak	Lehen sektorea	139	238	219	-99	-41,60	-80	-36,5
	Erauzketa-industriak	7	1	5	6	600,00	2	40,0
	Manufaktura-industriak	2.561	2.270	2.558	291	12,82	3	0,1
	Energia	6	13	12	-7	-53,85	-6	-50,0
	Ura	50	39	87	11	28,21	-37	-42,5
	Eraikuntza	189	148	181	41	27,70	8	4,4
	Merkataritza	4.760	3.922	4.917	838	21,37	-157	-3,2
	Garraioa	869	873	849	-4	-0,46	20	2,4
	Ostalaritza	6.461	6.477	7.006	-16	-0,25	-545	-7,8
	Informazioa eta komunikazioa	1.199	966	827	233	24,12	372	45,0
	Finantzak eta aseguruak	151	121	166	30	24,79	-15	-9,0
	Higiezinen sektorea	67	94	82	-27	-28,72	-15	-18,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.029	846	1.256	183	21,63	-227	-18,1
	Administraziokoak	4.031	3.444	4.174	587	17,04	-143	-3,4
	Administrazio publikoa	978	776	835	202	26,03	143	17,1
	Hezkuntza	3.156	2.945	2.669	211	7,16	487	18,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.023	6.416	7.627	607	9,46	-604	-7,9
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.576	1.128	1.839	448	39,72	-263	-14,3
	Beste zerbitzu batzuk	1.142	636	1.283	506	79,56	-141	-11,0
	Etxeetako jarduerak	1.074	1.137	1.524	-63	-5,54	-450	-29,5

Kontratuen erregistroa 2023ko ekainean

		Eka-2023	Mai-2023	Eka-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	5	2	-2	-40,00	1	50,0
	Guztira	36.471	32.495	38.118	3.976	12,24	-1.647	-4,3
Guztira	Lehen sektorea	1.012	2.019	1.775	-1.007	-49,88	-763	-43,0
	Erauzketa-industriak	16	7	16	9	128,57	0	0,0
	Manufaktura-industriak	10.148	8.772	11.414	1.376	15,69	-1.266	-11,1
	Energia	19	25	23	-6	-24,00	-4	-17,4
	Ura	588	321	553	267	83,18	35	6,3
	Eraikuntza	2.252	1.960	2.794	292	14,90	-542	-19,4
	Merkataritza	8.600	6.888	9.058	1.712	24,85	-458	-5,1
	Garraioa	4.740	4.849	5.464	-109	-2,25	-724	-13,3
	Ostalaritza	10.753	10.254	11.992	499	4,87	-1.239	-10,3
	Informazioa eta komunikazioa	2.926	2.384	2.119	542	22,73	807	38,1
	Finantzak eta aseguruak	313	226	267	87	38,50	46	17,2
	Higiezinen sektorea	95	131	120	-36	-27,48	-25	-20,8
	Zientifikoak eta teknikoak	2.107	1.668	2.538	439	26,32	-431	-17,0
	Administraziokoak	7.750	6.288	7.524	1.462	23,25	226	3,0
	Administrazio publikoa	1.458	1.196	1.334	262	21,91	124	9,3
	Hezkuntza	4.313	3.918	3.871	395	10,08	442	11,4
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.974	8.224	9.702	750	9,12	-728	-7,5
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.963	2.982	4.537	981	32,90	-574	-12,7
	Beste zerbitzu batzuk	1.704	1.017	2.025	687	67,55	-321	-15,9
	Etxeetako jarduerak	1.169	1.233	1.644	-64	-5,19	-475	-28,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	7	5	4	2	40,00	3	75,0
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
Gizonak	<>	1	1	2	0	0,00	-1	-50,0
	Zuzendaritza	108	90	103	18	20,00	5	4,9
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.560	3.274	2.840	286	8,74	720	25,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.097	3.596	4.908	1.501	41,74	189	3,9
	Administrazioko langileak	1.490	1.202	1.446	288	23,96	44	3,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	8.037	6.838	8.920	1.199	17,53	-883	-9,9
	Oinarrizko kualifikatuak	240	384	308	-144	-37,50	-68	-22,1
	Industriako kualifikatuak	4.109	3.308	5.208	801	24,21	-1.099	-21,1
	Operadoreak	4.407	3.956	4.813	451	11,40	-406	-8,4
	Kualifikatu gabeak	9.387	9.223	12.108	164	1,78	-2.721	-22,5
	Guztira	36.436	31.872	40.656	4.564	14,32	-4.220	-10,4
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	57	49	75	8	16,33	-18	-24,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.486	5.533	4.627	-47	-0,85	859	18,6
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	4.104	2.247	4.213	1.857	82,64	-109	-2,6
	Administrazioko langileak	2.604	2.177	2.715	427	19,61	-111	-4,1
	Zerbitzuetako kualifikatuak	15.024	13.769	15.659	1.255	9,11	-635	-4,1
	Oinarrizko kualifikatuak	20	49	28	-29	-59,18	-8	-28,6
	Industriako kualifikatuak	444	466	482	-22	-4,72	-38	-7,9
	Operadoreak	808	800	807	8	1,00	1	0,1
	Kualifikatu gabeak	7.924	7.405	9.512	519	7,01	-1.588	-16,7
	Guztira	36.471	32.495	38.118	3.976	12,24	-1.647	-4,3
Guztira	<>	1	1	2	0	0,00	-1	-50,0
	Zuzendaritza	165	139	178	26	18,71	-13	-7,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	9.046	8.807	7.467	239	2,71	1.579	21,1
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	9.201	5.843	9.121	3.358	57,47	80	0,9
	Administrazioko langileak	4.094	3.379	4.161	715	21,16	-67	-1,6
	Zerbitzuetako kualifikatuak	23.061	20.607	24.579	2.454	11,91	-1.518	-6,2

Kontratuen erregistroa 2023ko ekainean

		Eka-2023	Mai-2023	Eka-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	260	433	336	-173	-39,95	-76	-22,6
	Industriako kualifikatuak	4.553	3.774	5.690	779	20,64	-1.137	-20,0
	Operadoreak	5.215	4.756	5.620	459	9,65	-405	-7,2
	Kualifikatu gabeak	17.311	16.628	21.620	683	4,11	-4.309	-19,9
	Guztira	72.907	64.367	78.774	8.540	13,27	-5.867	-7,4
ABLE	Gizonak	7.120	6.823	8.961	297	4,35	-1.841	-20,5
	Emakumeak	3.463	3.411	3.869	52	1,52	-406	-10,5
	Guztira	10.583	10.234	12.830	349	3,41	-2.247	-17,5
Pertsona-kopurua	Gizonak	28.183	22.923	31.162	5.260	22,95	-2.979	-9,6
	Emakumeak	26.733	21.976	28.155	4.757	21,65	-1.422	-5,1
	Guztira	54.916	44.899	59.317	10.017	22,31	-4.401	-7,4
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	22.467	19.238	24.724	3.229	16,78	-2.257	-9,1
	Batxilergoa	12.887	10.009	13.799	2.878	28,75	-912	-6,6
	LHko ikasketak	10.719	7.733	11.172	2.986	38,61	-453	-4,1
	Unibertsitate-ikasketak	8.587	7.612	9.241	975	12,81	-654	-7,1
	Atzerritarra	9.832	9.408	10.170	424	4,51	-338	-3,3
	Bertakoa	45.084	35.491	49.147	9.593	27,03	-4.063	-8,3
	<>	25	23	33	2	8,70	-8	-24,2
	Aberrigabea	50	45	60	5	11,11	-10	-16,7
	Europako Erkidegoa	794	729	846	65	8,92	-52	-6,1
	Erkidegokoa ez den Europa	772	716	850	56	7,82	-78	-9,2
	Txina	134	91	90	43	47,25	44	48,9
	Japonia	3	2	1	1	50,00	2	200,0
	Asiako beste herrialde bat	537	504	642	33	6,55	-105	-16,4
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.029	1.088	1.253	-59	-5,42	-224	-17,9
	Afrikako iparraldea	1.299	1.485	1.567	-186	-12,53	-268	-17,1
	Ipar Amerika	17	14	24	3	21,43	-7	-29,2
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.169	4.707	4.799	462	9,82	370	7,7
	Ozeania	3	4	5	-1	-25,00	-2	-40,0
	Atzerritarrak guztira	9.832	9.408	10.170	424	4,51	-338	-3,3